


| | |
|--|---|
| AKRONIMOA: Mikrolker | LOGOA:  |
| IKERKETA TALDEAREN IZENA Mikrolker Ikerkuntza taldea | |
| Kontaktua Farmazia Fakultatean (Izena, posta elektronikoa): Irati Martínez Malax-etxebarria, irati.martinez@ehu.eus | |
| Web orrirako esteka: | |
| Zientziaren esparrua(k): Mikrobiologia | |

| | |
|---|--|
| Hitz gakoak: | Elikagaietako patogenoak, WGS, dibertsitatea, epidemiologia |
| <p>Deskribapena (gehienez 800 karaktere)</p> <p>Mikroiker Ikerkuntza Taldean zenbait urte daramatzagu osasunean, elikaduran eta ingurumenean garrantzitsuak diren mikroorganismoen azterketa egiten. Horretarako hazkuntzan oinarritutako ohiko teknika mikrobiologikoak erabiltzen ditugu, baina azken urteetan sekuentziazio-teknika masiboak gehitu ditugu gure ikerketa lanetara ere. Diziplina anitzeko ikuspegia hartuta abiapuntu gisa (Medikuntza, Farmazia, Biologia eta Bioinformatika), gaur egun garatzen ditugun ikerketa lerroen ardatz nagusia mikroorganismoen aztertzea da hauek banatzen edo topatzen diren ingurumen desberdinetan. Funtsezko helburuak mikroorganismoen karakterizazioa egitea, azterketa epidemiologikoa burutzea eta mikroorganismoen banaketa aztertzea dira.</p> | |
| <p>Ikerketa-lerroak (gehienez 800 karaktere)</p> <p>1: Garrantzi klinikoko eta elikadura-jatorriko mikroorganismoen aztertzea eta karakterizazioa.</p> <p>Gure ikerketa taldeak jakietako patogenoen identifikazioan eta karakterizazioan lan egiten du, batez ere <i>Salmonella</i> generokoak eta campilobakterioak, baita garrantzi kliniko berezia duten beste patogeno batzuetan ere, hala nola <i>Pseudomonas aeruginosa</i>, elikagaien segurtasunean eta zaintza epidemiologikoan erabilgarri izan daitezkeen markatzaile epidemiologikoak bilatuz. Horretaz gain, antimikrobianoekiko erresistentzia geneen eta birulentziarekin erlazionatutako geneen azterketan jarduten dugu, besteak beste, aztertutako isolatuen patogenesiaren eta moldatzeko eta eboluzionatzeko ahalmenaren ezagutza gehitzeko.</p> <p>2: Ingurumeneko mikroorganismoen dibertsitatearen azterketa.</p> <p>Ikerketa lerro honetan batez ere Añanako Gatz Haraneko ur laginetako mikroorganismoen dibertsitatea aztertzen da. Horretarako ohiko hazkuntza-metodoak zein teknika molekularrak erabiltzen dira. Azterketa horiei esker ekosistema gazi horretako mikroorganismoen aberastasuna eta dibertsitatea ezagutzea ahalbidetzen da eta bertako mikroorganismo prokariotoek izan dezaketen erabilera bioteknologiakoak zehaztea.</p> | |

Ekipamendua

Ikerketa taldeak mikroorganismoekin lan egiteko guztiz hornitutako laborategiak ditu (berogailuak, mikroskopiaok, kabinak, etab.) baita biologia molekularreko lanetan aritzeko ekipamenduak ere (azido nukleikoak erazteko eta kuantifikatzeko sistemak, termozikladoreak, elektroforesi-sistemak, etab.). Horretaz gain, azterketa bioinformatikoak egiteko kapazitate handiko zerbitzariak ditugu.

| Ikerketa taldekideak | | Saila | Zentrua | Sail Atala |
|--------------------------------|--|---|----------------------------|-----------------|
| Ikertzaile Nagusia (IN) | Irati Martínez Malax-etxebarria | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| IN-laguna | Ilargi Martínez Ballesteros | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Irakasle Titularra | Joseba Bikandi Bikandi | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Irakasle Titularra | Rodrigo Alonso Monsalve | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Irakasle Atxikia | Lorena Laorden Muñoz | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Predoktorala | Aitor Achaerandio Landa | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Predoktorala | Ainhoa Arrieta Gisasola | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Predoktorala | Itsaso Baztarrica Uria | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Predoktorala | Adrian Salazar Sánchez | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Predoktorala | Maia Azpiazu Muniozguren | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |
| Doktorego ikaslea | Ohiana Rodríguez Medina | Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia | Farmazia Fakultatea | Farmazia |

(gehitu taldekide adina lerro)

Ikerketa taldearen argazkia (taulan txertatu edo fitxarekin batera posta elektronikoz bidali)